

# XXXVI Leioako Argazki Lehiaketa



Leioa  
UDALA-AYUNTAMIENTO



kultur  
LEIOA



## Parte hartzaileak

Nahi duten guztiek parte har dezakete argazki-lehiaketa honetan, betiere, ezarritako modalitateen barruan.

## Modalitateak

- Zuri-beltza.
- Kolorea.
- Iphoneografiak edo mugikorrarekin egindako argazkiak.

## Gaia

Gaia edozein izan daiteke, baina lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanek beste lehiaketaren batean saritu gabeak izan behar dute.

## Lanen ezaugarriak

Argazkiak derrigorrez aurkeztu beharko dira gehienez 1,7 mm-ko lodierako passpartout baten gainean, 30 x 40 cm-ko neurri estandarrean.

Leihoak 30 cm-ko zabalera eta 20 cm-ko garaiera izango ditu gehienez, argazki etzanetan; eta 20 cm-ko zabalera eta 30 cm-ko garaiera gehienez, argazki bertikaletan.

Kontsultatu muntaiarako adibideak, [www.kulturleioa.com/argazkilehiaketa2012](http://www.kulturleioa.com/argazkilehiaketa2012) webgunean.

## Lanak aurkeztea

Lehiaketara aurkeztutako lanekin batera, oinarri hauen eranskin gisa doakizuen inskripzio-orria (beteta eta gutunazal itxian sartuta) edo parte hartzailearen datuak (izena eta abizenak, helbidea, jaiotze-data, posta-elektronikoa eta telefonoa) jasotzen dituen agiria aurkeztu behar da. Aurkeztutako lanak eta datuak dituen gutunazala beste gutunazal handiago baten barruan aurkeztuko dira. Gutun handiago horretan ez da jarriko egilea identifika dezakeen zehaztasunik. Lan bakoitzaren atzealdean izenburua idatziko da. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, banan-banan edo multzoan.

## Lanak entregatzea

Lanak posta ziurtatu bidez bidali edo zuzenean entrega daitezke helbide honetan:

### **KULTUR LEIOA**

**Jose Ramon Aketxe plaza 11, 4.**

**48940 Leioa (Bizkaia)**

Bidaltzerakoan lanak galdu edo hondatzen badira, antolatzaileek ez dute bere gain erantzukizunik hartuko.

## Lanak aurkezteko epea

**Lanak aurkezteko epea 2012ko urriaren 19an, ostirala, amaituko da.**

# Epaimahaia

Lanen aukeraketa eta sarien banaketa epaimahai baten proposamenaren araberako dira. Hain zuzen ere, honako hauek osatuko dute epaimahaia:

**Epaimahaiburua:** Leioako Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.

**Idazkaria:** Kultura eta Gazteria sailaren zuzendaria edo berak eskuordetutakoa.

**Epaimahaikideak:** lehiaketaren xede den diziplinan aritzen diren 3 pertsona.

Epaimahaiak, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, ondoko egoera hauekiko edozeinetan dauden lanak deskalifikatu ahal izango ditu:

- Zalantza egiletza dutenak.
- Pertsonen duintasunaren aurka egiten dutenak.
- Beste lan batzuen plagiotzat hartzen direnak eta, halakotzat hartu ez arren, imitaziotzat jotzen direnak edo beste lan batzuetan inspiratuta daudenak. Gainera, aipaturako lanen oso antzekoak direnen kasuan, eta epaimahaiak ezaugarri horien berri izanik, epaimahakideek erabakitzen dutenean aurkeztutako lanek ez dutela originaltasun-meriturik.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Era berean, epaimahaia bera arduratuko da oinarri hauetaz sor daitezkeen zalantza, ustekabe eta interpretazio oro argitzeaz, epaimahaiaren irizpidea gailenduko da beti.

## Epaia

Sari-banaketa, 2012ko azaroaren 30ean izango da, 19:30etan, Kultur Leioan.

Epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek behar besteko kalitate artistikorik ez badute, epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, lehiaketako mailari eusteko betiere.

Era berean, beharrezkoak iruditzen zaizkion akzesit guztiak eman ahal izango ditu egokia dela uste badu. Kasu horretan, akzesita irabazten dutenek diploma jasoko dute.



# Sariak

1. Saria (koloretan)	400 euro eta diploma
1. Saria (zuri-beltzean)	400 euro eta diploma
Hiru argazkitako multzorik onena	400 euro eta diploma
Mugikorrarekin ateratako argazkia	300 euro eta diploma
Herriko lanen artean argazkirik onena	200 euro eta diploma

Aurkeztutako argazkia mobil bidez egindakoa denean, izena emateko fitxan berariaz adierazi behar da datu hori.

## Jabetza

Leioako Udala geratuko da saritutako lanekin. Horrela bada, lanak erakutsi eta kopiak atera ahal izango du eta inork ezin izango dio egile-eskubideak ordaintzeko eskatu. Lanak Udalaren kultur ondare izango dira eta inork ezin izango ditu saldu edo erosi.

## Erakusketa


Aurkeztutako lanen kopuruaren arabera, parte hartzen duten argazkien aukuraketa bat ikusgai jarriko da Kultur Leioako 5. solairuan (Jose Ramon Aketxe plaza 11), 2012ko urriaren 26tik abenduaren 28ra bitartean.

## Lanak itzultzea

Erakusketa amaitu eta hurrengo 30 egunetan itzuliko dira saririk jaso ez duten lanak.

Antolatzaileek kontu handiz zainduko dituzte aurkeztutako lanak, baina lanok galdu edo hondatzen badira, ez dute bere gain erantzukizunik hartuko.





## Oharrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak goitik behera onartzen direla esan nahi du.

Bidaltzen diren lanak bidean hondatu edo galtzen badira antolatzaileak ez du erantzukizunik izango.

**+ Informazioa**

Tel. 94 6072578

[infokultur@leioa.net](mailto:infokultur@leioa.net)

[www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

# Izena emateko orria

Izen-abizenak

Helbidea

P.K.

Herria


Probintzia

Telefonoa

Jaioteguna


E-maila

\*Gutunazal itxi batean bidali.




# Leioako XXVI. Argazki Lehiaketa

1. Argazkia




Mugikorrarekin aterata

2. Argazkia



Mugikorrarekin aterata

3. Argazkia



Mugikorrarekin aterata

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren 5. artikulua bez-  
tez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan sartuko dituzun datuak Kultura Saileko lehiakete-  
ten fitxategian artxibatuko direla, helburua deitutako lehiaketako izangaiak ezagutzea  
dela, informazio-jasotzaileak Leioako Udaleko Kultura Saileko langileak eta arduradunak  
izango direla, eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala dela (Elexalde auzoa 1).